

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

364

Urtarrilak 1, 2020

- 3** Berri laburrak
- 4-5** Santo Tomas
- 6-7** Gabonetako argazkiak
- 8-9** Kirolak: 2019. urteko lorpenak
- 10** Caser

- 11** Haurren lanak / Denborapasak
- 12** Irunabar / Gazteen lanak
- 13** Beti Gazte: EuskarAbentura
- 14** Gazte Informazioa
- 15** Agenda



Zer gertatu zen Irunen orain dela 100 urte?

Urtarrilaren 4ean argitaratu zen "El Bidasoa" aldizkariaren 1920. urteko lehen zenbakia. Aldizkariaren barneko lehen artikuluan, azken udal bileretan izandako istiluez hitz egiten da Pio Baroja idazleari gaiaren inguruko bere iritzia galdetuz. Horren ostean, "Aspectos locales" izeneko atalean 1919. urtearen amaiera, zinegotzien istilu eta aldizkariaren aurreko zenbakian publikatutako inozentadaren emaitzaz hitz egiten da. Aldizkariako kolaboratzaile batek "Arkale" izenarekin artikulua sinatzen dituen kolaboratzailearen itzulera ospatzen du berari eskainitako artikulua baten bitartez. Jarraian, idazkaritzako langile bati jarritako zigorra epaitu eta "El Bidasoa" aldizkariako langileek gaiaren inguruan duten iritzia zabaltzen dute idatzi labur baten bitartez. Lehen orrialdearen amaieran, Stefaniaik Donostiako Kasinoan eskainitako kontzertuaren inguruko kronika zabala idazten du "C." letrarekin sinatzen duen kolaboratzaileak.

Kirol kronika da "El Bidasoa" aldizkariaren 227. zenbakiko bigarren orrialdean irakur daitekeen lehen artikulua eta, bertan, Real Union futbol klubak azken partiduetan lortutako emaitzak errepasatzeaz gainera, hanka apurtu berri duen Borda jokalaria laguntzeko antolatu den ongintzako partiduaren azken nobedadeak aipatzen dira, hurrengo partietako hitzorduak gogoratzeaz gainera. Ondoren, "La voz de Guipuzcoa" egunkarian publikatutako glosa batzuk argitaratzen dira "El Bidasoa" aldizkariaren zenbaki honetan, horren ostean, aldizkarian txisteei zuzendutako atal berriak irakurleen artean izan duen harreraren berri emateko. Txori Txiki kolaboratzaileak "1919" titulua duen olerkia idatzi du zenbaki honetarako eta Angelek sinatutako zenbakian Irungo antzokietan izandako azken emanaldiak errepasatzen dira.

Aldizkarian 1918. eta 1919. urteetan izandako jaiotza, ezkontza eta heriotza kopuruak aztertzekeo tartea gordetzen da, datuak alderatu eta ondorioak ateratzeko. "Notas Municipales" atalean udal bilkurako azken erabakiak bildu ostean, "Hace años ..." atalean 1884. urteko gertakari eta albisteak gogora ekartzen dira. Jarraian, guraso babesgabe batzuk laguntzeko hiritarrek egindako ekarpen ekonomikoen zerrenda argitaratzen da, "Ecos de sociedad" atalean bildutako nobedadeekin aldizkariako edukiak amaitu eta hiriko komertzioen publizitateari lekua uzteko.

- G28256: Gabonak ospatzen Irungo eskola batean.
- G28017: Gabon-kanten lehiaketako argazkiak.
- G41199: Gau-zaharren ospakizuna Irungo Kasinoan 1956. eta 1957. urteen artean.



G28256



G28017



G41199

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Publizitatea:

Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Inprenta:

ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Udal Euskaltegiako Lannahi programako 2. txandan izena emateko aukera dago oraindik

Irungo Udal Euskaltegiak Lannahi programaren 2. txandarako (urtarrilaren 7tik martxoaren 18ra) plaza hutsak daudela jakinarazten du. Lannahi langabezian daudenei edo lanean egonda ere % 50 arteko lanaldia dutenei, euskara debalde ikasteko aukera eskaintzen dien programa da. Hortaz gain, lanean daudenek, ikastaro hauetan izena eman dezakete, betiere, dagokion tasa ordainduta.

Eskolak egunero eskaintzen dira, astelehenetik ostiralera, goizeko 09:00etatik 13:15era. Lannahi programaren inguruko informazio gehiago eskuratzeko 943 50 52 73 telefono zenbakira deitu eta Udal Euskaltegiako bulegora hurbiltzeko aukera dute interesatuek.

LANNAHI

Gazteek hitza hartu dute osoko bilkuran

Abenduaren 29an goizeko 10:30etatik aurrera Eguzkitza, Hirubide eta Txingudi ikastetxeetako ikasleek osoko bilkuran parte hartu zuten. Guztira, 25 ikaslek 13 ikasgeletako ikasleak ordezkatu zituzten. Rebeca Gonzalez Hezkuntza, Gazteria, Balore, Giza Eskubide eta Berdintasun ordezkariak Eider Encaboren esku utzi zuen bilera gidatzeko ardura, zinegotzi lanetan aritu ziren ikasleek Txingudi ikastolako 3.B ikasgelako ikaslea ordezkari bezala hauta ostean.

Azken hilabeteetan zehar, hiriko 3 ikastetxe horietako 240 ikaslek Gazteen Osoko Bilkura prestatzeko lanean aritu dira. Gazteen Osoko bilkura 2009 urtetik Irungo ikastetxeetan garatzen den proiektua da. Aurtengo bilkuran landutako gaia "Aniztasunean Bizikidetzatza" izan da. Gazteen Osoko Bilkurak bi helburu nagusi dauzka. Batek, gazteen artean elkartasuna, bizikidetzatza, tolerantzia, eta Giza Eskubideekiko errespetua bezalako baloreak zabaltzea. Bestetik, ikastetxeetako ikasleek prozesu demokratikoak ezagutzera eta berdintasun, errespetu eta indarkeria ezarekin lotutako proposamenak onartzerako orduan prozesu horiek duten garrantzia gazteei ulertaraztea.

Abenduaren 19ko Gazteen Osoko Bilkuran azken hilabeteetan zehar 240 ikaslek egindako proposamenak helarazi zituzten ordezkariak. Guztira, gazteek 19 proposamen aurkeztu eta bozkatu zituzten eta, bilkura amaieran, 17 proposamen onartu ziren azkenik.

Prozesu honetan zehar ikastetxeetan egindako gelako jardueraz gain, ikastetxeen artean antolatutako ekin-tzekin tartekatuta dira. Jarduera horietan, ikasgelako ordezkarien lanari esker proposamen propioak egiteaz

gainera, beste taldeek egindako ekarpenak aztertu dituzte. Horrela, ikasleek proposamenak eztabaidatu, argudioak eraiki, iritziak defendatu eta erabakiak batera-tzeko jarraitu beharreko estrategiak landu dituzte, entzute aktiboa, enpatia eta Irunen eragin zuzena duten akordioak lortzeko bilakera pentsakorren bitartez.

Akordioetatik lanera

Prozesuaren emaitzak hiriaren aniztasunean bizikidetzatza

hobetzeko proposamenak izan dira. Horrela, garapen maila handitzearekin batera, eguneroko bizikidetzaren inguru hurbilean (eskola, hiri, familia, sare sozial eta bikote zein harreman afektiboetan) eskubideen aplikazioa egokiagoa egitea bilatzen dute ikasleek onartutako proposamenek. Era honetan, bizikidetzatza eta Giza Eskubideen ikuspuntutik, gazteek alor horietan hobetu beharreko egoerak topatu dituzte.



Fernando
Vergara
argazkilaria

Letxumborro hiribidea 100,2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com





Eguraldiaren bi aurpegi

Irundarrek eguraldiaren bi aurpegi ezberdin ezagutu zituzten Santo Tomas egunean. Eguraldi eguzkitsuak erakarrita, Urdanibia plaza jendez bete zen eguneko lehen zatian. Horrela, 2019ko abenduaren 21a azken urteetako Santo Tomas egun jendetsuenetako bat izango zela zirudien. Arrataldean, aldiz, eguraldi txarraren ondorioz Santo Tomas egunaren inguruan udalak antolatutako ekintza guztiak bertan behera utzi zituen.

Abenduaren 21eko goizak irudi eguzkitsuak utzi zituen eta Txorimaloak soinu taldeak eta Adaxka eta Eraiki dantza taldeek haien emanaldia eskaintzeko aukera izan zuten. Eguzki izpien artean, Barazki, Animala eta Ezti lehiaketetako sariak banatu ziren. Barazki lehiaketan Maria Guadalupe Echevestek lehen saria irabazi zuen, bigarren saria Joaquina Gaztelumendik eskuratu zuen bitartean. Animalien lehiaketako irabazlea Unai Gonzalez izan zen, bigarren sari hori ere Joaquina Gaztelumendik eskuratu zuen bitartean. Azkenik, ezti lehiaketako lehen saria Miguel Berridik eskuratu zuen eta Juan Mari Arambolozak bigarren saria lortu zuen.

Arratsaldean, aldiz, eguraldia erabat aldatu zen. Eguzkia desagertu ostean, haize bolada eta euri zaparraden ondorioz udalak arratsalderako prestatutako ekintza guztiak bertan behera gelditu ziren. Ondorioz, Irungo Udal Musika Eskolako ikasleak, Auntxa trikitixa taldeak, Ibarla Meaka Dantza Taldeak, Meakako euskal dantza taldea, Bidasoako trikitilariak, Meakako Adixkideak eta Kemen Dantza Taldeak ez zuten Urdanibia plazako eszenatokira igotzeko aukerarik izan. Hala ere, gaueko 21:00etan Burrunba Elektro-txarangak eguraldiari aurre egitea erabaki zuen. Gaueko aterraldia aprobetxatuz Urdanibia plaza inguruko kaleak musikaz bete zituzten, horrela, Santo Tomas eguna giro alaiarekin amaituz.



giak Santo Tomas egunean



2019. urteko Gabonek



EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964

FELIX MANSO IBARLA JATETXEA

info@felixmanso.com
www.felixmanso.com



Irunen utzitako irduak



2019. urtean eskualdeko taldeek



Bidasoa Irun taldeko jokalariek eta teknikariak XXX. Asobal Kopako txapeldunorde garaikurrarekin Valladoliden. Argazkilaria: Eduardo Ágreda (Asobal).



Super Amara BAT taldeak 2019. urteko udaran antolatutako udako ekintzetako parte- hartzaileak

Urte berri baten hasierarekin, oso ohikoa izaten da denboran atzera egin eta amaitu berri den urteak utzitako lorpenak errepasatzea. Horrela, 2019. urtean zehar hiri eta eskualdeko kirol talde ezberdinek era askotariko emaitzak lortu dituzte. Orain, aldiz, urte berriaren hasierarekin, aurreko denboraldietan bete gabe gelditu diren helburuei eusteko unea da.

Eskubaloien urrezko garaia

2019. urtea lorpenez betetako urtea izan da Bidasoa Irun taldearentzat. Izan ere, Valladoliden Asobal Kopako txapeldunorde titulua lortzeaz gainera, Velux EHF Champions League Europako txapelketara itzultzea lortu du. Lorpen horien ondorioz, klubeko bazkideen kopuruak gora egin du era nabarmenean, 1.484 abonaturen zifra historikoa lortu delarik. Asobal ligako lehen itzulian 24 puntu lortu ditu, hau da, klubaren historian puntu gehien lortu dituen lehen itzulia izan da, 1994/1995 denboraldian lortutakoen ostean. Gainera Bidasoa bere atean gol

gutxien jaso dituen taldea izan da lehen itzuli honetan. Hortaz gain, Txingudi Egaindar taldearen sorrerarekin eskualdeko eskubaloiak bultzada berria jaso du kategoria txikiagoetan.

Real Unionen bizirauteko borroka

Real Union taldeak Bigarren dibisioko B taldeko II. taldean jarraitze lortu zuen aurreko denboraldiaren amaieran Jumilla taldea 3. dibisiora bidali ostean. 2019-2020 denboraldiko lehen zatien amaieran Real Unionen lehen taldea sailkapenaren 17. postuan aurkitzen da 19. jardunaldia jokatu ostean. Jokalari txuri-beltzek 18 puntu lortu dituzte denboraldiaren lehen zatian, orain arte jokatutako partiduetan 5 garaipen, 3 berdinketa eta 10 partidu galdu ondoren. Horrela, talde irundarrak borrokari eutsi beharko dio jaitsiera postuak atzean utzi eta talde berean mantentzeko.

Zaisa Txingudi kategoria berrian

2018-2019 denboraldian bigarren fasea jolastu ahal iza-

teko sailkapena lortzeko helburua bete zuen Zaisa Txingudi taldeak. Udako hilabeteetan zehar txapelketaren kategoriak altuak berrantolatu ostean, 2019-2020 denboraldian zehar Zaisa Txingudi taldeari kategoria altuago batean jokatzea egokituko zitzaiola jakin zen. Erronka onartuta, Zaisa Txingudi taldeak sailkapenaren taulan gora egiten jarraitzeko borrokari eutsi dio beti.

Elorrioko taldearen aurka lehen itzuliko azken partidua galdu ostean, Zaisa Txingudik 110 puntu lortu ditu sailkapen ofizialean, orain arte garaipen eta berdinketa bana eta 6 partidu galdu ondoren. Taldea Euskal Ligako 8. postuan aurkitzen da une honetan eta urtarrilaren 11ean Getxo jokatuko den hurrengo partiduan puntuak gehitzen jarraitzeko aukera berri bat izango du. Gainera, 2019. urtea berezia izan da klubarentzat, izan ere Txingudi Errugbi klubak kirol elkartearen 50. urteurrena ospatu zuen eta.



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



2020ko lortutako kirol lorpenen errebasoa



2019-2020 denboraldian Leka Enea Mahai-tenis kluba osatuko duten kirolarien argazkia denboraldi berriaren aurkezpen egunean.

Txingudi Errugbi klubaren argazkia 2019. urtean jokaturako partidu batean.

Lanaren emaitzak Super Amara BATn

Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak urriaren 25ean 2018-2019 denboraldiaren amaiera ospatzeko afaria antolatu zuen Iñigo Lavado jatetxean. Bertan, aurreko denboraldiko lorpenak errebasatzeaz gainera, denboraldi berria aurkeztu zen. Afarian, aipamen ezberdinak egin ziren Espainia mailan lortutako podium edo Espainiako txapelketan finalista izandako atelesten lorpenak gogora ekartzeko. Hortaz gain, denboraldia zehar markak apurtzea lortu zuten atletak goraiatu ziren. Guztira, 400 haurrek osatu zuten aurreko denboraldian Irun eta Hondarribiko atletismo eskola eta 200 federatu txartel baino gehiago izan zituen klub bidasotarrak. Klubak udaran antolatutako udalekuetan 500 haur baino gehiago parte hartu zuten. Gainera, klubak Super Amara Gabonetako Krosa, Inmobiliaria Urme Txingudi Korrika, Irungo Maratoi erdia, Elduaen Irun Hiria Krosa eta Osasunaren Aldeko Miliak Salto Systems bezalako kirol proben antolatetari eusten dio.

Santiagotarrak modalitate ezberdinetan nagusi

Santiagotarrak eskolar eta federatuen artean guztira 276 kirolari izan zituen 2019. urteko denboraldian zehar. Horien artean, ur lasterren modalitatean Ander Elosegik

lortutako pase olinpikoaz gainera, Joan Crespo eta Klara Olazabalek Munduko Txapelketan izandako parte hartzeak aipagarriak dira. Arraunean, berriz, 93 kirolari federatuek Euskadi eta Espainiako txapelketetan parte hartu zuten eta Aitzpea Gonzalezek Sarasotan antolatutako mundialeko 5. postuan Santiagotarrak klubaren izena ipintzea lortu zuen. Azkenik, pistako sailean Nerea Garcia eta Aitor Gorrotxategi Sprint Mundialeraino iritsi ziren, Intza Mendez eta Jon Morenok, berriz, Txinako Maratoi Mundialean parte hartzea lortu zuten bitartean. Emaitza bikainez betetako urtearen ostean, klubak aurreko denboraldiko emaitzak berdintzea du helburu 2020. urteko denboraldiari begira.

Bidasoa XXI zabalpen bidean

BidasoaXXI klubak aurreko urteetan baino kirolari gehiago izango ditu bere taldean 2019-2020 denboraldiari aurre egiteko. Guztira 325 kirolarik osatuko dute kluba denboraldi honetan zehar, 200 kirolari baino gehiago igeriketako atalean, 75 waterpolo jokalaria eta masterreko 50 kirolariek batera. Gainera, erronka berria izango dute, izan ere, Oarsoaldea IKTarekin sinatutako akordioaren ostean, klub irundarrak bere eragin eremua zabaltzea lortu du, alboko eskualderaino iritsiko baita.

Gabonetan atsedean hartzeko aukera gutxi izan dute kirolariek, klubeko zenbait kirolarik XXXV. Gabonetako Nazioarteko Igeriketa Txapelketa bezalako probetan parte hartu baitute.

Leka-Enea sare ertzean

Champions Leaguean bi talde zituelarik hasi zuen Leka Eneak 2019/2020 denboraldia. Hortaz gain, taldeak liga nazionalen eta autonomikoan, horien artean, Super Dibisioa, Ohorezko dibisioa, Nazionaleko lehena eta nazionaleko bigarrena, bai gizon zein emakumezkoenak, zein liga autonomikoak (ohorezko dibisioa, Eukal lehen taldea eta bigarrena) jokalaririk ditu. Taldeak antolatutako denboraldi aurkezpenen eskolako jokalariek ere parte hartu zuten. Gabonak iritsi aurreko asteburuan liga nazional eta autonomikoetako azken partiduak jokatu zituzten Leka Eneko kirolariek. Bertan, klubeko Emakumezkoen Super Dibisioko taldeak porrotaren zapora dastatu zuen, Europa Cup-eko etsaia ezagutzearekin batera. Talde maskulinoak ere Real Cajasur Priego TM-ren kontrako partidua galdu zuen. Ohorezko Super Dibisioko mutilei urtea garaipenarekin ixtea ezinezkoa izan zitzaion.

la
BIO
teka

Denda ekologikoa

Garapuz konposaketaren analisi

HEYQUT - Fruitu lehor-krema

Aukeraturako produktu ekologikoa

Produktu onenekin batera zure ECOBOXa hilabetera jaso ezazu

bioteka.es



Beraketa 15, Irun



943 63 04 68



Real Unioneko jokalariek Caser Residencial Anakako egoitza bisitatu dute

Gabonetako ekintzen barnean, Real Union klubeko futbol jokalariek Caser Residencial Anakan duen egoitza bisitatu dute. Abenduaren 30eko eguerdian egin zuten bisita eta egoitzako egoiliarrek eta langileak agurtzeaz gainera, eguneko zentroko erabiltzaileak bisitatu eta urte berria zoriontzeko aukera izan zuten. Ekintza hau urtero Anakako egoitzan errepikatzen den bisitetako batean bihurtzen ari da, izan ere, urte batetik bestera sendotuz doan hitzordua da. Zentzu horretan, denboraren poderioz, jokalariek ezagunak egiten zaizkien aurpegiak ikusten dituzte eta kirolari eta egoitzako erabiltzaileen arteko harreman bereziak sortzen dira. Bisitaren ostean, egoitzak eskaintako lunch-az gozatu zuten.

Jokalarien bisitarekin Real Union taldearen iragana eta oraina leku berean nahasten dira. Horrela, futbolariak egoiliarrekin hitz egiteko aukera izaten dute, haien biziaren eta Real Union taldearekin loturik dauzkaten oroitzen arretaz entzuten dituzten bitartean. Gainera, bisita aprobetxatuz, egoiliarrek Real Unioneko jokalariekin argazkiak atera eta futbolarien sinadurak jasotzeko aprobetxatzen dute.

Egoiliarren artean Real Union taldeko jarraitzaile ugari daude eta bisita hau oso une berezi eta hunkigarria izaten da beraiarentzat. Mikel Azkoiti Real Unioneko jokalaria adierazi duenez, "jendea gu hemen ikusteaz asko pozten da eta oso harrera ona egiten digute". Hortaz gain, bisita amaitu aurretik, klubak Real Unioneko banderak, motxilak, DVDak eta bestelako materialak oparitzen dizkio egoitzari, opariak erabiltzaileen artean zozketatu daitezzen.

Jokalaria zein egoiliarrentzat data berezia izaten da Caserko egoitza bisitatzeko eguna. Real Union taldeko Mikel Azkoiti jokalaria bisitan zehar azaldu zuen, "Real Union betidanik lotura estua izan du Irungo hiriarekin eta horrelako ekintzen bitartez lotura hori mantentzea posible da". Bisitaren amaieran Real Unioneko jokalaria egoiliarrek agurtzen dituzte, datorren urtean ere ekintza hau errepikatzeko asmoarekin.



Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Toki Alai LH2



Denbora-pasak

Zazpi hitz: Hilabeteak

A	R	A	T	E	A	Ñ	O	T	X	S	X	I
T	R	U	N	U	H	A	O	X	T	R	A	M
S	A	X	Z	R	O	A	P	T	T	T	U	A
I	A	A	L	T	R	K	A	A	A	C	A	E
T	S	S	E	A	A	A	L	I	R	I	P	A
I	E	U	Z	R	E	I	U	L	L	N	M	O
S	T	A	I	R	T	R	L	M	L	A	I	A
N	Z	L	U	I	R	N	I	A	I	R	S	K
E	A	I	T	L	R	I	E	A	R	A	T	A
R	A	A	R	A	E	A	T	E	B	A	E	M
A	C	S	L	N	I	Z	B	T	D	I	A	P
L	C	T	E	K	A	I	N	A	N	S	N	T
O	E	O	D	R	A	A	A	D	I	R	E	T

	9		3	5			
6		3			9		2
1		5	7			9	4
	6		2				3
		1		3			
2					1		7
			1	9		8	
	1						6
4				8	5	3	9

Urtarrila, Otsaila, Martxoa, Apirila,
 Maiatza, Ekaina, Uztaila



Lurtarron, desafioak

Doinua: Potajiarena
Egilea: Andoni Zelaia

- | | |
|--|---|
| <p>1)
Zer moduz irakurle
Zenbait gogoeta,
Noren eskutan dago
Lurtarron oreka,
Iturriak agortu
Mendiak erreta,
Ura gainez daraman
Ibaia, erreka,
Gaixotasun sintomak
Hartu du planeta.</p> | <p>5)
Kontsumo erregelak
Ez da berriketa,
Multinazionalen
Zombi hariketa,
Dena da merkatua
Diru pilaketa,
Aurrean pareta bat,
Atzean pareta,
Ez ote gara hari
Burukin kolpeka.</p> |
| <p>2)
Hausnartzeko denbora
Hartzea bederen,
Planeta bakarrean
Bizi gara zeren,
Laster ez da guretzat
Ez eta besteren,
Zuzentzeko aukera
Helduko ote den,
Ondorengoentzako
Kixkali baino lehen.</p> | <p>6)
Abia-puntuaren
Kilometro zero,
Denbora kontua da
Extresan bezero,
Nora, joan etorri
Hola egunero,
Beste biderik iada
Ez da honezkero
Tximista bezain bizkor
Bidaiatu edo.</p> |
| <p>3)
Ozono zulo beltza
Handitzen, handitzen,
Atmosfera zikinez
Hari da loditzen,
Otz-bero, baremoak
Dijoaz gorritzen,
Ezin esan naturak
Ez duela sufritzen,
Gero eta zailago
Daukagu garbitzen.</p> | <p>7)
Lur azpiaren txanda
Bete baita gaina
Bide-gorri, metroa
Ta bus-a jakina,
Bakoitzari autoa
Motoa patina,
Lemoniz-en bikia
Beharko da baina,
Elektrika sortzeko,
Guztientzat haina.</p> |
| <p>4)
Aurre ikusten duen
Zientzi zentroa,
Itsasoa igoko
Omen da metroa,
Zikloiak, lurrikarak
Dena da makroa,
Horren aurrean nola
Mantendu neutroa,
Gerora iristeko
Orainan zikloa.</p> | <p>8)
Lurtarron erronkari
Jo diot aldaba,
Kontsumoa handitu
Berdin habiada,
Zorionaren zama
Zinez hori bada?
Itzulerarik gabe
Aurkituko gara,
Suntsipenera doan
Trena habian da.</p> |

Eguzkitza DBH4

Irati Esandi 4.A

ANIMALIA BASATIAK GATIBUTZAN

Gizakion eraginak animalia asko galzorrira edo kaleletara bidali ditu, izan ere basoen edo oihanean libre bizi behariko luketen animalia asko gatzibutzan daude, alegia preso. Gatibutza mota desberdinak daude:

- **Zoologikoak:** igande arratsaldeetan jendez gainezka eta haur zaratatsuez betetako tokiaz izateaz gain, animalia exotikoak hazi eta erakusten diren tokia da. Gaur egun mundu osoan 1.000 zoo baino gehiago daude eta horietatik %80a hirietan daude. Euskal Herrian zoo bakarra dago.
- **Zirkuak:** wikipediak dioenez zirkuak definizioz ikuskizun artistikoa da non pallazoan, malabaristen, akrobaten, magoen eta animalien erakustaldiak dauden eta harriz herri mugitzen diren. Denok ezagutzen dugu garai orri non hiriko kartel guztiak zirkuko propagandaz betetzen den. Niri egia esan zirkuak beldurra ematen dit (pallazoengatik gehien bat, baina hori ez dator kontura) gainera ez dut uste animaliak Madagaskarren pelikulan bezain zoriontsu bizi direnik duten "lanarekin" kaleletan sartuta bizi badira.
- **Ikerketa zientifikoa:** Mundu osoan 100 milioi animaliatik gora erabiltzen dira ikerketarako urtero. Animaliekin egindako seiak hainbat esparrutan garatzen badira ere, giza osasunarekin lotuta dauden proiektuak dira nagusi. Gaur egun erabiltzen diren tratamendu medikoetatik asko animalietan egindako esperimentuen bitartez lortu dira. Zer helburu lortu nahi dira animalia giza horiekin esperimentuak eginez?

Ez nuen uste gatibutzak animalian dakarkion onurarik aurkituko nuenik, baino bat badut. Adibidez zoologikoek gatzeko zorian dauden animalia mantentzen eta zaintzen ditu.

Gatibutzak gizakian dakarkion onurak alde batetik entretenimendua eta aisialdia dira eta bestetik esperimentuak egiteko deitzen diren "conejillo de indias" dira.

Testu osoan zehar nire iritzia ematen egon naizen arren, testu hau itxeko esango dut nik eta nire familiak bai ordaindu dugula zoologiko bat ikusteko. Ez naiz oso harro sentitzen, ze alde batetik asko gustatzen zait horrelako animaliak ikustea, ze haurri ez zaito gustatzen zoo bat! Baina bestetik, urteak pasata izugarritzko pena ematen didate horrelako toki txikietan ikustea. Ez dut uste animalia guzti horiek bere habitatean eta libre ikustean preziorik izan dezakeenik. Jendeak gehiago pentsatu beharko luke horretan.



Iñaki Goikoetxea, EuskarAbenturaren antolatzailea:

“Gazteek Euskal Herri osoa oinez ezagutuko dute EuskarAbenturari esker”



EuskarAbentura Euskal Herriko gazteentzat euskaraz antolatzen den espedizio bat da. Espedizioa uztailaren 1etik 31ra egingo da eta Euskal Herri guztia zeharkatuko da. Euskara, kultura eta kirolaren eskutik ingurua ezagutzeko aukera izango dute gazteek Iñaki Goikoetxea antolatzaileak azaldu duenez.

Zeintzuk dira proiektuaren helburuak?

Euskara gazteen artean bultzatzeko helburuarekin sortu zen proiektua da. Lehen espedizioa 2018. urtean egin zen eta hauek dira espedizioaren 4 helburu nagusiak: Euskararen erabilera bultzatzea, euskal kultura zabaltzea, gazteen artean sareak sortzea eta espedizioa inguratzen duten balore positiboan zabalpena sustatzea.

Orain arte egindako EuskarAbentura espedizioen balorazioa positiboa da?

Bai, orain arte bi espedizio antolatu dira eta bakoitzean 120 gaztek parte hartu dute. Lehenengoa antolatu genuenean ez genekien nola aterako zen, baina, antolakuntzak, gazteek eta inguruko guztiek oso balorazio positiboa egin dute.

Zer egin behar da hirugarren EuskarAbenturan parte hartzeko?

16 eta 17 urte arteko gazteei zuzendutako abentura da, beraz, abenturara batzeko gazteek proiektu bat aurkeztu behar dute. Proiektua osatzeko hiru gai proposatzen zaizkie gazteei: euskal emakume sortzaileak, ingurumen sailkatua eta berdintasun edo integrazio bidean dauden kolektiboak. Lana era askotariko formatean bitartez aurkeztu daitezke: proiektu literarioak, eskulanak, ikus-entzunezko sormenak, ... Lanak entregatzeko epea martxoaren 15era arte zabalik egongo da. Lanak baloratu ostean, 2020. Urteko EuskarAbentura parte hartuko duten gazteen zerrenda argitaratuko da.

Zer egingo dute gazte horiek EuskarAbenturaren barnean?

Gazteek Euskal Herri osoa oinez ezagutuko dute EuskarAbenturari esker. Abentura Zuberoan hasiko da eta Getxoraino iritsiko da. EuskarAbentura bizitzan

“EuskarAbentura bizitzan behin bakarrik bizitzan den abentura horietako bat izango da”

behin bakarrik bizitzen den abentura horietako bat izango da.

Mota askotako jendea elkartzen da abenturan?

Bai, euskararen inguruko errealitate guztiz ezberdinak bizi dituzten gazteak elkartzen dira bertan. Euskal Herriko eremu ezberdinetako parte hartzaileak izan ditugu, baita euskal diasporako ki-deak. Harrigarria da, nahiz eta euskararen ezagutza maila ezberdinak izan, gazteak nola elkartu eta elkar ezagutzen diren ikustea.

Zein izan ohi da ibilbidea?

Aurten ibilbidean aldaketaren bat egotea gerta daiteke. Orain arte, aldiz, Zuberoan hasi eta Pirinioetatik Nafarroa guztia zeharkatu ostean, Arabatik euskal lurraldean sartu gara berriro. Araba eta Gipuzkoako barnealdean zehar ibili ondoren kostaldera iritsi izan gara. Lapurdin 2 edo 3 egun pasa ondoren, Biarritz eta

“Euskararen inguruko errealitate guztiz ezberdinak bizi dituzten gazteak elkartzen dira bertan”

Baiona bisitatu eta Irundik sartzen ginen berriro kostaldetik Bilbo ingurura iritsi arte.

Nola moldatzen zarete espedizioan zehar lo egin edo otorduak antolatzeko?

EuskarAbentura logistika erronka handi bat da eta aktore asko parte hartzen dute bertan. 120 gazte eta begiraleez gainera, antolakuntzaz arduratzen den lan talde handia dago abenturaren atzean. Egunean zehar toki batetik bestera mugitzen gara eta toki bakoitzean bertako ohiturak edo gaiak lantzen saiatzen gara, horrela, Euskal Herriaren argazki orokor bat lortu ahal izateko.

Abenturan Irungo parte-hartzailearen bat izatea polita izango litzateke?

Bai, orain arte euskal lurraldeko leku askotako jendeak parte hartu duen arren, oraindik ez da parte hartzaile irundarrik abenturan estreinatu. Beraz, 16 eta 17 urteko gazteak abenturan izena ematera animatzen ditugu.



2020ko Irungo Inauterietako kartel lehiaketa

- **Aurrez aurre:** Irungo CBA liburutegi berrian
- **Telefonoz:** 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- **Posta elektronikoz:** igazte@irun.org
- **Web gunean:** www.irun.org/igazte
- **WhatsApp bidez:** 607 771 173

2020ko Irungo Inauterietako kartela lehiaketa ireki baten bitartez hautatuko da eta bertanparte hartzeko aukera hiritar guztiei zabaltzen zaie. Lanak Amaia Kultur Zentroko Lopez Becerra kaleko sarreran entregatu beharko dira asteartetik larunbatara 9:30etatik 12:00etara eta 18:00etatik 21:00etara eta igandeetan 11:30etatik 13:30etara. Hortaz gain, posta bidez bidali ahalko da kartela eta 2020ko urtarrilaren 14rako egon beharko da Amaia Kultur Zentroan. Lehiaketara aurkeztutako kartelean testu hau agertu beharko da: IRUNGO INAUTERIAK 2020 CARNAVALES DE IRUN otsailak 20-25 febrero.

- **Lanak entregatzeko epea:** 2020ko urtarrilak 10.
- **Sariak:** Sari nagusia 600 euro eta 200 eurotako akzesita.
- Parte hartzaile bakoitzak obra bakarra entregatu ahalko du.
- **Epaimahaia:** Irungo inauterietako konpartsetako ordezkariak osatuko dute eta urtarrilaren 15ean bilduko da, 18:00etan Amaia Kultur zentroan eta lehen saria eta akzesita hautatuko ditu.

iGazte Gabonetan oporretan

iGazte zerbitzuaren bulegoa itxita egongo da abenduaren 19tik urtarrilaren 14era Gabonetako oporrak direla eta. Barkatu eragozpenak!!

Betti Gotti ezagutu nahi?

Betti Gotti euskara kultur elkarte gara. Betti Gotti elkartearen barnean gurekin lan egitera animatuko zinateke? Euskaraz egin, jolastu eta bizi nahi dugu!

Elkartea ezagutu eta Betti Gottiren parte izateko interesa duten pertsonak Instagrameko @BettiGotti profila edo bettigotti@hotmail.com posta elektronikoren bitartez elkarteko kideekin harremanetan jartzeko aukera izango dute.

Euskadiko Gazteak Lankidetzan

Garapenerako ekintzak hegoaldeko herrialdeetan izaten dira: Amerika, Asia eta Afrikan hain zuzen ere. Esperientziak hiru hilabeteetako iraupena izango du, uztailetik urrira arte. Parte hartu nahi baduzu hauek dira bete beharreko baldintzak:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri bateko erroldan inskribatuta egotea.
2. 1990. eta 1998. urteen artean jaio izana, bi urte horiek barne.
3. Jarduera egingo den herrialdean erabiltzen den nazioarteko hizkuntza menperatzea.

Izen-ematea: Otsailaren 6ra arte.



Folder

Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA



Kolon ibilbidea, 2
(atzeko aldea)
www.kopiarart.net
kopiarart@kopiarart.net
943 63 93 01

Urtarrilak

3

Arkeolab

Zer: 8 eta 12 urte arteko haurrentzako indusketak eta laborategi tailerra.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordua: 11:00etatik 12:30etara.

Prezioa: 4 euro, sarrera mugatua.

Salmenta: Oiasso Erromatar Museoan edo 943 63 93 53 telefono zenbakira deituz.

4

Erregeen gutun bilketa

Zer: Errege Magoen morroiek haurren gutunak jasoko dituzte.

Non: Irungo Udaletxeko bilkura aretoan.

Ordutegia: Arratsaldeko 16:00etan hasi eta 20:00ak arte.

4

Burrumba Elektrotzaranga

Zer: Burrumba Elektrotzarangak hiriko kaleak musikaz alaituko ditu.

Ibilbidea: Oiasso museotik abituta, Fermin Calbeton, Colon pasealeku, Zabaltza plaza, Luis Marianotik igaro eta San Juan plazara iritsiko dira.

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.



Denborapasen emaitzak

A	R	A	T	E	A	N	O	T	X	S	X	I
T	R	U	N	H	A	O	X	T	R	A	N	
S	A	X	Z	H	O	A	P	T	T	U	A	
J	A	A	L	T	R	K	A	A	C	A	E	
T	E	S	E	A	A	A	L	I	B	C	P	A
J	E	U	Z	H	E	F	U	L	L	N	O	
S	T	A	I	R	T	R	M	L	A	I	A	
N	Z	U	T	R	N	C	A	I	R	S	K	
E	A	I	R	I	C	A	R	A	T	A		
B	A	A	B	A	E	A	E	B	A	E	M	
A	E	S	L	N	I	S	T	D	T	A	P	
L	E	E	K	A	I	N	A	N	S	N	I	
O	E	O	D	R	A	A	A	D	I	R	E	T

7	9	2	3	5	4	6	1	8
6	4	3	0	1	9	7	2	5
1	8	5	7	2	0	9	4	3
5	6	0	2	4	7	1	3	8
9	7	1	0	3	8	4	0	2
2	3	4	0	0	1	5	0	7
3	5	0	1	0	2	8	7	4
8	1	8	4	7	3	2	0	6
4	2	7	8	0	5	3	9	1

5

Erregeak datoz

Zer: Errege Magoei ongietorria.

Ordutegia: 18:00 Errege Magoak tren geltokira iritsiko dira. Ondoren, 18:30etan Erregeen Kabalgata abiatuko da.

Ibilbidea: Letxunborro hiribidetik irten eta San Juan plazara abiatuko dira.

Oharra: Ibilbidearen amaieran erregeak udaletxeko balkoiatik hiriko haurrak agurtuko dituzte.

9

Hitzaldia: "Android sekreturik gabe"

Zer: Android sistema eragilearen funtzionamendua ezagutzeko aukera, mugikor eta tabletei ahalik eta etekin handiena ateratzeko helburuarekin.

Non: CBA liburutegiko KZ gunean.

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Sarrera: Librea.

Hizkuntza: Gaztele-raz.

10

Bakarrizketa: Luis Piedrahita

Zer: Luis Piedrahitaren "Es mi palabra contra la mia" bakarrizketa emanaldia.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00tan.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiaren leihatilan emanaldiaren egunean.

11

Antzerkia: "Safari"

Zer: Familientzako Safari izeneko antzerkia.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 17:00etan.

Prezioa: 4,40 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo Turismo bulegoan eta antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean.

Zorionak

eta urte

berri on!

Txintxo tabernak Gabon zoriontsuak opa dizkizue!

Txerri-belarri egosiak eta txerri-azal frijituak dira gure espezialitateak. (Sukaldaritza tradizionala) Bokatak, hanburgesak etab. Giro atseginean.

Dario de Regoyos Kalea 2, Irun

943 10 33 56



Eskuratu Irunero aldizkaria Txintxo tabernan

